

Euskal Autonomia Erkidegoko industri jarduerak urte arteko %1,9ko hazkunde-tasa izan du 2008ko urtarrilean


Aurreko hilaren aldean, 2007ko abenduaren aldean, %0,7 hazi zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2008ko urtarrilean %1,9 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneotan, 2007ko hil beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %0,7 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, 2007ko abenduarekin alderatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiru hilabeteka

% hazkundera



(*) 2008ko urtarrileko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2008ko urtarrileko indizearen bilakaera hazi egin da ekipamendu ondasunetan (%2,4), tarteko ondasunetan (%3,3), eta energian (%0,3), 2007ko urtarrilaren aldean. Kontsumo-ondasunak %-4,0 jaitsi dira; kontsumo-ondasun ez-iraunkorren prezioak %-0,8 jaitsi ziren, eta kontsumo-ondasun iraunkorrenak %-11,3.

2007ko abenduaren aldean, 2007ko urtarrilean hil arteko aldaketak positiboak izan dira energiaren (%7,0), ekipamendu ondasunen (%1,8) eta tarteko ondasunen (%0,3) sektore nagusietan; aitzitik, 2007ko abenduaren aldean betiere, kontsumo-ondasunek %-4,3 egin dute behera. Kontsumo-

ondasunen osagaien artean, kontsumo-ondasun iraunkorrek %-10,8ko hil arteko murrizpena izan dute eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrek %-1,4 egin dute behera, aurreko urteko abenduaren aldean.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera Industri Produkzioaren Indizeak bilakaera positiboa izan du Gipuzkoan (%3,1) eta Bizkaian (%2,2); Araban %-0,9ko jaitsiera dago.

Lurraldeetako hil arteko hazkunde-tasei dagokienez (2008ko urtarrilekoak, 2007ko abenduaren aldean) bilakaera ezberdinak izan dira aipatu aldian: Araban %1,4 hazi da tasa hori hil artean eta Gipuzkoan (%1,6); Bizkaian tasa horrek behera egin du (%-0,5).

Taula: 2008ko URTARRILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	Urt08/Urt07	At/At-1 (1)	Urt08/Abe07	Abe07/Aza07
Indize orokorra: Euskal AE	1,9	1,9	0,7	1,2
Araba	-0,9	-0,9	1,4	3,4
Bizkaia	2,2	2,2	-0,5	0,7
Gipuzkoa	3,1	3,1	1,6	0,6
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-4,0	-4,0	-4,3	7,1
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-11,3	-11,3	-10,8	13,6
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-0,8	-0,8	-1,4	4,4
Ekipo-ondasunak	2,4	2,4	1,8	1,3
Bitarteko ondasunak	3,3	3,3	0,3	0,5
Energia	0,3	0,3	7,0	-1,2

(1) t urteko urtariletik azken hileraren artean metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean.

Iturria: Eustat

Ohar metodologikoa: 2008ko urtarrileko Industri Prezioen Indizea 2005 oinarri berriarekin egin da, 2000 oinarriari jarraitzen diolarik. Oinarri aldaketa honek, beste abantaila batzuen artean honakoa dakar: Euskal AEko industria-sektoreko enpresa informatzaileen ordezkatzeko-panela eguneratzea, enpresa-kopurua eta sektore-estaldura nabarmen gehituz.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Telef.: +34 -945 75 00 Faxa: +34 -945 75 01 e-mail: eustat@eustat.es
Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja
Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01
Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp